



TOKIKO GOBERNU BATZARRA

2026.03.10

Alkatea:
Angel Martinez de Rituerto Arregui

Bertaratutako zinegotziak:
Miren Yosune Sanz Vidal
Cristina Pelaez Errazquin
Aitor Aguirresarobe Murgui

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita seiko martxoaren hamarrean, 09:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

Ez da bertaratu:
Ander Figuerido Zubiria
Goiuri Eceiza Arandia

Udal idazkaria:
Sara Berasategui Fuertes

1. Akta hau onartzea:
2026ko otsailaren 24koa.
2. Onartzea, hala badagokio, «20 Amartz » esparruko «20.1 Amartz Paper-Fabrika» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketa. Akats aritmetikoa zuzentzea: 2.1 eta 2.2 zenbakidun partzela pribatu eraikigarrien koordinadak zuzentzea.
3. Onartzea, hala badagokio, Tolosako Udalaren eta Tolosaldea Garatzen S.A.-ren arteko hitzarmenaren luzapena.
4. Dekretu hauen berri ematea:
2026/295 Dekretua: 2025/131 faktura zerrenda.
2026/543 Dekretua: 2025/133 faktura zerrenda.
2026/542 Dekretua: 2025/134 faktura zerrenda.
2026/541 Dekretua: 2025/135 faktura zerrenda.
2025/2186 Dekretua: 2025/137 faktura zerrenda.
2026/573 Dekretua: 2025/138 faktura zerrenda.
2026/643 Dekretua: 2025/139 faktura zerrenda.



2026/640 Dekretua: 2025/140 faktura zerrenda.

2026/639 Dekretua: 2025/141 faktura zerrenda.

2026/684 Dekretua: 2025/143 faktura zerrenda.

2026/680 Dekretua: 2025/144 faktura zerrenda.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2026KO OTSAILAREN 24KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, «20 AMAROTZ » ESPARRUKO «20.1 AMAROTZ PAPER-FABRIKA» AZPIESPARRUKO BIRPARTZELAZIO-PROIEKTUAREN LEHEN ALDAKETA. AKATS ARITMETIKOA ZUZENTZEA: 2.1 ETA 2.2 ZENBAKIDUN PARTZELA PRIBATU ERAIKIGARRIEN KOORDENADAK ZUZENTZEA.

IKUSIRIK

Dokumentua	Data/Sarrera-Irteera Zk.	Oharrak
VISESak aurkeztutako birpartzelazio-proiektuaren aldaketa, hasierako onespenerako	2024/11/27 (2024-14889)	
VISESak aurkeztutako birpartzelazio-proiektuaren aldaketari lotutako dokumentazio osagarria	2025/01/03 (2025-274/276)	Jabetza Erregistroko ziurtagiriak eta planoak
Araudi SL enpresak, Nekane Azarola Martinez abokatuak ordezkatuta, birpartzelazio-proiektuaren aldaketari buruzko txosten juridikoa	2025/01/22 (2024-1039)	Tolosako Udalak hala eskaturik



Hirigintzako tekniko juridikoaren txostena (MAU25008)	2025/01/23	Hasierako ematearen baldintzapean	onespena aldekoa,
Udaleko idazkari akzidentalaren ziurtagiria, TGBk hartutako erabakiaz	2025/01/29	Hasierako ematearen baldintzapean	onespena erabakia,
VISESari TGBk hartutako erabakiaren jakinarazpena	2025/01/31 (2025-328)	Hasierako ematearen baldintzapean	onespena erabakia,
Iragarkiaren argitalpena:			
- GAOn	2025/02/17 (31 zk.)		
- Udaletxeko taulan	2025/02/17- 2025/03/17		
- Udaleko web orrian	2025/02/18	Informazio publikoaren amaiera:	2025/02/20
- Aldizkarietan: Berria eta Tolosaldeko Ataria El Diario Vasco	202/02/19 2025/02/20		
VISESak aurkeztutako alegazioa	2025/02/21 (2025-2668)		
Hirigintzako tekniko juridikoaren txostena (MAU250026)	2025/03/26	Jendaurrekoari buruzkoa	
Idazkari akzidentalaren ziurtagiria	2025/03/26	Jendaurrekoari buruzkoa	
VISESak aurkeztutako birpartzelazio-proiektuaren aldaketa, behin betiko onespenerako	2025/04/15 (2025-5241)		
Araudi SL enpresak, Nekane Azarola Martinez abokatuak ordezkatuta, birpartzelazio-proiektuaren aldaketari buruzko txosten juridikoa	2025/05/26 (2025-7336)	Tolosako Udalak eskaturik	hala
Hirigintzako tekniko juridikoaren txostena (MAU250056)	2025/05/27	Aurkeztutako alegazioa onartu eta behin betiko onespena ematearen aldekoa	
Udaleko idazkari akzidentalaren ziurtagiria, TGBk hartutako erabakiaz	2025/06/05	Aurkeztutako alegazioa onartu eta behin betiko onespena ematearen aldekoa	
VISESari TGBk hartutako erabakiaren jakinarazpena	2025/06/09	Aurkeztutako alegazioa onartu eta behin betiko onespena ematearen aldekoa	
Iragarkiaren argitalpena:			
- GAOn	2025/06/19 (115)		
- Udaletxeko taulan	2025/06/19-2025/07/21		
- Udaleko web orrian	2025/06/19		
- Aldizkarietan: Berria Tolosaldeko Ataria El Diario Vasco	2025/06/20 2025/06/24 2025/06/25		
Udaleko idazkariaren ziurtagiria	2025/07/29		



HIRUGARRENA.- 2026ko martxoaren 4an (2026-3499 sarrera zk.), "Vivienda de Suelo de Euskadi S.A.-Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA" sozietateak, Carlos Quindós Fernándezek ordezkaturata, aurkeztutako idatziak azaldutakoa eta gehitutako planoan islatutakoa:

<<

EXPONE

Que, tras reciente estudio topográfico de 24 de febrero del presente, realizado por la empresa TOPO KAPA S.L, han sido detectados errores en las coordenadas georreferenciadas UTM en las parcelas de resultado 2.1 (finca registral nº22.126) y parcela 2.2 (finca registral nº22.127) del subámbito urbanístico "20.1 Papelera Amarotz" que constaban en el documento de aprobación definitiva de modificación del Proyecto de Reparcelación de dicho subámbito. Las coordenadas correctas tras dicha reciente medición son las siguientes:

Parcela 2.1		Parcela 2.2	
X=575000,21	Y=4775023,17	X=575032,18	Y=4774959,79
X=575025,42	Y=4774973,16	X=575055,44	Y= 4774914,01
X=574969,68	Y=4775007,77	X=575004,19	Y=4774945,57
X=574994,89	Y=4774957,77	X=575022,50	Y=4774917,50
		X=575038,86	Y=4774905,58

Se adjunta al presente escrito plano con la corrección de dichas coordenadas georreferenciadas.

SOLICITA

Sea aprobada por parte del Ayuntamiento dicha rectificación de las coordenadas de las parcelas 2.1 (finca registral nº22.126) y parcela 2.2 (finca registral nº22.127)

>>

LAUGARRENA.- Txosten hau izenpetzen duenak egiten duen **AZTERKETA JURIDIKOA**:

- I. Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Akats materialaren interpretazioari dagokionez, Auzitegi Gorenaren jurisprudenziaira jo dezakegu, zeinak, besteak beste, honako hau adierazten baitu 2006ko otsailaren 15eko epaian:

«El error material o de hecho se caracteriza por ser ostensible, manifiesto e indiscutible, implicando, por sí solo, la evidencia del mismo, sin necesidad de mayores razonamientos, y exteriorizándose "prima facie" por su sola contemplación (frente al carácter de calificación jurídica, seguida de una declaración basada en ella, que ostenta el error de derecho), por lo que, para poder aplicar el mecanismo procedimental de rectificación de errores materiales o de hecho, se requiere que concurren, en esencia, las siguientes circunstancias: Que se trate de simples equivocaciones elementales de nombres, fechas, operaciones aritméticas, o transcripciones de documentos, que el error se aprecie teniendo en cuenta exclusivamente los datos del expediente administrativo en el que se advierta, que sea patente y claro, sin necesidad de acudir a interpretaciones de normas jurídicas aplicables, que no se proceda de oficio a la revisión de actos administrativos firmes y consentidos, que no se produzca una alteración



fundamental en el sentido del acto (pues no existe error material cuando su apreciación implique un juicio valorativo o exija una operación de calificación jurídica), que no padezca la subsistencia del acto administrativo es decir, que no genere la anulación o revocación del mismo, en cuanto creador de derechos subjetivos, produciéndose uno nuevo sobre bases diferentes y sin las debidas garantías para el afectado, pues el acto administrativo rectificador ha de mostrar idéntico contenido dispositivo, sustantivo y resolutorio que el acto rectificado, sin que pueda la Administración, so pretexto de su potestad rectificatoria de oficio, encubrir una auténtica revisión, y que se aplique con profundo criterio restrictivo».

II. Aplikatu beharreko legeria honako hau da:

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. eta 109. artikulua.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. eta 22. artikulua.

III. Errakuntza materiala edo egitezkoa nabarmena, agerikoa, eztabaida ezina eta agerikoa da berez, arrazoibide gehiagoren beharrik gabe, eta prima facie azaleratzen da, hura ikusteagatik bakarrik; beraz, errakuntza materialak edo egitezkoak zuzentzeko mekanismoa aplikatu ahal izateko, inguruabar hauek gertatu behar dira:

- 1) Izenen, daten, eragiketa aritmetikoen edo dokumentuen transkripzioen oinarriko akats soilak izatea;
- 2) Akatsa atzemateko, kontuan hartu behar dira soilik akatsa ohartarazten duen administrazio-espeditentearen datuak;
- 3) Akatsa nabarmena eta argia izatea, arau juridiko aplikagarrien interpretazioetara jo beharrik gabe;
- 4) Administrazio-egintza irmoak eta onartuak ofizios ez berrikustea;
- 5) Egintzaren zentzuan funtsezko aldaketarik ez gertatzea (akats materialik ez dagoelako, hura balioesteko balorazio-judizioa egin behar denean edo kalifikazio juridikoa egin behar denean);
- 6) Administrazio-egintzaren iraupenik ez izatea, hau da, haren deuseztapena edo errebokazioa ez eragitea, eskubide subjektiboen sortzaile den aldetik, eta beste oinarri-azal bat sortzea, ukituarentzat behar diren bermerik gabe; izan ere, administrazio-egintza zuzentzaileak zuzendutako egintzaren xedapen-eduki, funtsezko eta ebazpen-eduki bera izan behar du, eta Administrazioak, ofizios zuzentzeko duen ahalaren aitzakiaz, ezin du benetako berrikuspena estali; eta
- 7) Irizpide murriztaile sakon batekin aplikatzea.

IV. Hona hemen akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak zuzentzeko prozedura:

- a) Alkateak akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak zuzentzeko espeditentea hasiko du, eta interesdunei entzuteko izapidea irekitzea erabakiko du. Hala ere, interesdunei entzuteko izapide hori ez da beharrezkoa izango prozeduran interesdunik ez badago edo prozedura alderdi batek eskatuta hasi bada eta eskatzailea prozeduran interesdun bakarra bada.
- b) Entzunaldiaren izapidea amaituta, alegazioak aurkeztuta eta haiei buruzko txostena eginda, egintza eman zuen organoak akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak zuzentzea onartuko du. Hala, zerbitzu teknikoen txostenean akats mate-



riala, egitezkoa edo aritmetikoa dagoela justifikatuko da. Era berean, nahiz eta aplikatu beharreko legeriak ez duen adierazten zein den akatsen zuzenketa onartzeko organo eskuduna, bermatzaileena da zuzendu beharreko egintza eman zuen organo berari egokitzea eskumena.

- c) Egintza zuzendu dela jakinaraztea interesdunei, dagozkien errekurtsioak adierazita.

ZORTZIGARRENA.- «20 Amarotz» esparruko «20.1 Amarotz Paper-Fabrika» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketaren akats aritmetikoa zuzentzeko eskumena Alkateari dagokiola, hirigintza-kudeaketako egintza den heinean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Tolosako Udalari dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaioa 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuz. Hortaz, organo horri dagokiola akats aritmetikoa zuzentzea.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Akats materiala, egitezkoa edo aritmetikoa zuzentzea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109. artikuluan ezarritakoaren arabera, espediente honetan:

Espedientea:	2024H1180002
Prozedura:	«20 Amarotz» esparruko «20.1 Amarotz Paper-Fabrika» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketa
Ebazpena:	Aurkeztutako alegazioaren onespina eta behin betiko onespina
Data:	Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025ko ekainaren 3an egindako bilkura.

Zehazki honako dokumentu honetan:

Dokumentua:	Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren «20 Amarotz» esparruko «20.1 Amarotz Paper-Fabrika» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketako testu bategina; 2025eko apirilaren 15ean, erregistro zk. 2025-5241, aurkeztutako dokumentuekin bat, Carlos Quindós Fernández zuzendari orokorrak, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA (VISESA) ordezkatzuz, aurkeztuta eta Maria Cristina Llamas Escribano arkitektoak zein Nerea Molina Gaueca eta Jon Arrieta Pérez de Arenaza letratu eta tekniko juridikoak idatzia
--------------------	---



Oharrak:	Memoriako XI. ANTOLAMENDU BERRIRA EGOKITUTAKO ONDORIOZKO PARTZELA BERRIEN DESKRIBAPENA izeneko ataleko 2.1 eta 2.2 zenbakidun partzela pribatu eraikigarrien erpinak definitzen dituzten koordenadak zuzentzea eta, baita, P.04 planoan P-2.1 eta P-2.2 partzelen koordenatuak.
-----------------	--

Honako zentzuan:
Honakoa dioen tokian:

25. orrialdea:
<<
PARTZELA: bi bat (2.1) zenbakiko partzela pribatu eraikigarria.

Deskribapena: HIRIKOA: Bizitegi-partzela pribatu eraikigarria, Tolosako “20.1 Amarotz paper-fabrika” azpierenmuaren Birpartzelazio Proiektua aldatzearen ondoriozko partzela eraikigarrien zerrendako bi bat zenbakia duena.

Mila bederatzehun eta hamabost metro eta hogeitazentimetro koadroko (1,915,20 m²) azalera du, eta honako hauek ditu mugakide: muga guztietan espazio libreen tokiko sistemara bideratutako jabari eta erabilera publikoko azalera. Honako hauek dira partzelaren erpinak definitzen dituzten koordenadak:

X=574968,59	Y=4775007,89
X=574999,28	Y=4775023
X=574993,33	Y=4774957,65
X=575024,01	Y=4774972,46

(...)>>

27. orrialdea:
<< **PARTZELA: bi bi (2.2) zenbakiko partzela pribatu eraikigarria.**

Deskribapena: HIRIKOA: Bizitegi-partzela pribatu eraikigarria, Tolosako “20.1 Amarotz paper-fabrika” azpierenmuaren Birpartzelazio Proiektua aldatzearen ondoriozko partzela eraikigarrien zerrendako bi bi zenbakia duena.

Mila lauhun eta hamabost metro koadroko (1.415 m²) azalera du, eta honako hauek ditu mugakide: muga guztietan espazio libreen tokiko sistemara bideratutako jabari eta erabilera publikoko azalera. Honako hauek dira partzelaren erpinak definitzen dituzten koordenadak:

X=575002,5	Y=4774945,36
X=575030,64	Y= 4774959,3
X=575020,48	Y=4774917,05
X=575036,69	Y=4774904,99
X=575053,34	Y=4774913,19

(...)>>

Adierazitako memoriako idatzizko testuaz gain, P.04 planoan (UTM koordenatuak amaierako partzeletan) ere egokitzen da P-2.1 eta P-2.2 partzelen koordenatuak ageri dira.

ESKUC07996Eb-6799-46d6-827a-096ced74e188

ALA



Honakoa esan behar du:

25. orrialdea:

<<

PARTZELA: bi bat (2.1) zenbakiko partzela pribatu eraikigarria.

Deskribapena: HIRIKOA: Bizitegi-partzela pribatu eraikigarria, Tolosako "20.1 Amarotz paper-fabrika" azpieroemuren Birpartzelazio Proiektua aldatzearen ondoriozko partzela eraikigarrien zerrendako bi bat zenbakia duena.

Mila bederatzehun eta hamabost metro eta hogeitazentimetro koadroko (1,915,20 m²) azalera du, eta honako hauek ditu mugakide: muga guztietan espazio libreen tokiko sistemara bideratutako jabari eta erabilera publikoko azalera. Honako hauek dira partzelaren erpinak definitzen dituzten koordenadak:

Parcela 2.1	
X=575000,21	Y=4775023,17
X=575025,42	Y=4774973,16
X=574969,68	Y=4775007,77
X=574994,89	Y=4774957,77

(...)>>

27. orrialdea:

<< **PARTZELA: bi bi (2.2) zenbakiko partzela pribatu eraikigarria.**

Deskribapena: HIRIKOA: Bizitegi-partzela pribatu eraikigarria, Tolosako "20.1 Amarotz paper-fabrika" azpieroemuren Birpartzelazio Proiektua aldatzearen ondoriozko partzela eraikigarrien zerrendako bi bi zenbakia duena.

Mila laurehun eta hamabost metro koadroko (1.415 m²) azalera du, eta honako hauek ditu mugakide: muga guztietan espazio libreen tokiko sistemara bideratutako jabari eta erabilera publikoko azalera. Honako hauek dira partzelaren erpinak definitzen dituzten koordenadak:

Parcela 2.2	
X=575032,18	Y=4774959,79
X=575055,44	Y=4774914,01
X=575004,19	Y=4774945,57
X=575022,50	Y=4774917,50
X=575038,86	Y=4774905,58

(...)>>

Adierazitako memoriako idatzizko testuaz gain, P.04 planoa (UTM koordenatuak amaierako partzeletan) ere egokitzen da P-2.1 eta P-2.2 partzelen koordenatuei dagokionez.

BIGARRENA.- Adierazitako zuzenketak barneratzen dituen Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren «20 Amarotz» esparruko «20.1 Amarotz Paper-Fabrika» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketako testu bategina aurkeztea.



HIRUGARRENA.- Erabaki hau Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EAri (VISESA) jakinaraztea.

LAUGARRENA.- Tolosako Jabetza Erregistroan dagokion oharra izapidetzea, behin betikoz onartutako Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren «20 Amartz» esparruko «20.1 Amartz Paper-Fabrika» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketaren inskripzioaren alboan.

BOSGARRENA.- Jabetza Erregistroan oharra izapidetu ostean, Gipuzkoako Foru Aldundian Hirigintzako eskumena duen Departamenduari zein Ogasun eta Finantza Departamenduari jakinaraztea.

3. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, TOLOSAKO UDALAREN ETA TOLOSALDEA GARATZEN S.A.-REN ARTEKO HITZARMENAREN LUZAPENA.

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, bi mila eta hogeita hiruko urriaren hogeita lauan, goian aipatutako Hitzarmena onartu zuen. Akordio bertan, hitzarmena atxikitu zen euskaraz eta erderaz.

Aipatutako Hitzarmena 2023ko azaroaren 8an sinatu zen eta Hitzarmenen Erregistroan 2023/40 zenbakiarekin inskribatu zen.

Ondoren, desadostasunak antzeman ziren euskarari eta gaztelaniari emandako idazketaren artean, baliozko testua izanik gaztelaniaz idatzitakoa.

Hori dela eta, Tokiko Gobernu Batzarrak, bi mila eta hogeita hiruko azaroaren hogeita zortzian, hitzarmenaren zuzenketa onartu zuen. Gainera, Hitzarmen Erregistroan 2023/40 zenbakiarekin inskribatutako hitzarmena deuseztatzea erabaki zen.

Zuzendutako Hitzarmena 2023ko abenduaren 15ean sinatu zen eta Hitzarmenen Erregistroan 2023/52 zenbakiarekin inskribatu zen.

Hitzarmenaren 8.klausulak honakoa dio:

“1.- Hitzarmen honen indarraldia 2026eko martxoaren 31an amaituko da.

2.- Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hura luzatzea (2026ko martxoaren 31ko gehieneko mugarekin, CIDren 221 mugarriak adierazten duen bezala) edo hura azkentzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015



Legearen 49 h) artikuluan xedatutakoaren arabera.”

2023ko urriaren 2an, KONTSEILUAREN BETEARAZPEN-ERABAKIAREN proposamena eman zen, zeinaren bidez aldatzen baita Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko Betearazpen Erabakia (ST 10150/2021; ST 10150/2021 ADD 1 REV 1), Espainiako suspertze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa. Honako hau ezartzen du:

«Inbertsio horren esparruko jarduketak 2021eko urtarrilaren 1etik 2026ko ekainaren 30era bitartean egingo dira, toki-erakundeei 2021eko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean ordaintzeko epearekin eta 2026ra arte luzatuko den gauzate-epearekin. Inbertsio honen esparruan helmuga turistikoaren jasagarritasuna sustatzeko proiektuek 2026ko ekainaren 30a baino lehen amaituta egon beharko dute. Inbertsioaren ezarpena, beranduenez, 2026ko ekainaren 30ean amaituko da”.

Bestalde, Europako Batzordeak, BATZORDEAK EUROPAKO PARLAMENTUARI ETA KONTSEILUARI EGINDAKO KOMUNIKAZIOAN (NextGenerationEU – Camino a 2026), nabarmendu du estatu kideek alde aurretik planifikatu behar dutela frogak aurkeztea eta haien sendotasuna bermatu behar dutela, eta ohartarazi du SEMa ixteko fasea kritikoa izango dela, eta justifikazio-dokumentazioa nahikoa ez izateak gorabeherak, atzerapenak edo are Batasunaren finantzaketa galtzea ekar dezakeela.

Jakinarazpenean kronograma hau ezartzen da:



Horiek horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bidez) eta Tolosaldea Garatzen S.A. erakundeek sinatutako hitzarmena luzatzea adostu dute 2026ko irailaren 30era arte.

Horregatik guztiagatik, planak erabat betetzen direla bermatzeko eta CoFFEEen eskatutako dokumentazio guztia eta 221. mugarria justifikatzeko beharrezkoa dena eskura jartzeko, beharrezkoa da hitzarmena 2026ko irailaren 30era arte luzatzea.



TXOSTEN JURIDIKOA:

Aplikagarria den araudia:

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. 49.2 artikulua:

“Aurreko artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren hitzarmenek barnean hartu beharko dituzte gai hauek, gutxienez:

(...)

h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:

1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.

2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.”

Hitzarmenak 2026ko martxoaren 31ra arteko iraupena zuen, beraz, epea ez da amaitu eta luzapena egin daiteke.

2026ko martxoaren 6an Idazkaritzako Administrazio Orokorreko Teknikariak aldeko txostena eman du.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tokiko Gobernu Batzarrak, bi mila eta hogeita hiruko azaroaren hogeita zortzian onartutako hitzarmenaren luzapenerako eranskina onartzea, indarraldia bi mila eta hogeita seiko irailaren hogeita hamarrera arte luzatuz. Bere edukia proposamen honi erantsi zaiona da.

BIGARRENA.- Hitzarmenaren luzapenerako eranskina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Gardentasun Atarian eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea. Baita Hitzarmen Erregistroan ere.



4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2026/295 Dekretua: 2025/131 faktura zerrenda

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI jaunak, Tolosako Udaleko alkate-udalburuak, emana, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 117. artikulua eta Bigarren Xedapen Gehigarriak xedatutakoaren arabera, zeinen bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten baita Espainiako ordenamendu juridikora.

IKUSIRIK

LEHENA.- 2025eko azaroaren 9an amaitu zela Tolosako Udalak ANTICIMEX enpresa-ekin kontratatua zuen arratoi-garbiketa, desinfekzioa, intsektu garbiketa, usoen kontrola eta liztor beltzen habien desaktibatzea egiteko zerbitzu kontratatua (2020SASI0005).

BIGARRENA.- Lizitazio berrirako Pleguen idazketan ari garela, baina epean ez dela lizitazio berririk egin.

HIRUGARRENA.- ANTICIMEX enpresak ematen duen zerbitzua premiazko zerbitzua dela, eta ezinbestekoa osasungarritasun arrazoiengatik, enpresak 2025eko azaroaren 10etik aurrera zerbitzua ematen jarraitzen duela.

LAUGARRENA.- Udal kontu-hartzaileak fiskalizazioaren omisio txostena egin duela, Tokiko Sektore Publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuaren 28. artikuluan xedatutakoa betez, ondorengo fakturei buruzkoa:



Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Kontzeptua
25FA188473	2025/11/28	502,88 €	TOLOSAKO UDALERRIAN ARRATOI-GARBIKETA, DESINFEKZIOA, INTSEKTU GARBIKETA, USOEN KONTROLA ETA LIZTOR BELTZEN HABIEN DESAKTIBATZEA EGITEKO AZAROKO ZERBITZUA.
25FA195012	2025/12/12	1.005,81 €	TOLOSAKO UDALERRIAN ARRATOI-GARBIKETA, DESINFEKZIOA, INTSEKTU GARBIKETA, USOEN KONTROLA ETA LIZTOR BELTZEN HABIEN DESAKTIBATZEA EGITEKO ABENDUKO ZERBITZUA.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Adierazten den fakturan agertzen diren prestazio guztiak Udalak eskatutako baldintzen arabera egin direla eta prestazioen kostua sektoreko merkatuari dagokiola. Prezio hauek, azkeneko urteetan enpresa berak aurkeztutako baliokide da aurkeztutakoa.

BIGARRENA.- Eman diren zerbitzuak beharrezkoak direla osasun publikoa, ondasunak eta ingurumena babesteko.

HIRUGARRENA.- Prestazioak Legeak horiek kontratatzeko ezarritako baldintzak ez betetzearen arrazoiak, kontratu berri bat esleitzeko eta esleitu bitarte, lizitazioaren prozedimendu administratiboek izan dituzten atzerapen teknikoen ondorioz izan da eta beraz, aparteko arazo tekniko hauek ez dira leporagarriak zerbitzua eman duen enpresari.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, alkate-lehendakari honek

EBAZTEN DU

LEHENA.- Anticimex enpresak 2025eko azaroaren 10etik aurrera arratoi-garbigeta, desinfezioa, intsektu garbigeta, usoen kontrola eta liztor beltzen habien desaktibatzea egiteko zerbitzua ematen jarraitzen duenez, eta prezioa merkatuprezioarekin bat dato-renez, honako fakturen ordainketa gitea onartzea:



Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Kontzeptua
25FA188473	2025/11/28	502,88 €	TOLOSAKO UDALERRIAN ARRATOI-GARBIKETA, DESINFEKZIOA, INTSEKTU GARBIKETA, USOEN KONTROLA ETA LIZTOR BELTZEN HABIEN DESAKTIBATZEA EGITEKO AZAROKO ZERBITZUA.
25FA195012	2025/12/12	1.005,81 €	TOLOSAKO UDALERRIAN ARRATOI-GARBIKETA, DESINFEKZIOA, INTSEKTU GARBIKETA, USOEN KONTROLA ETA LIZTOR BELTZEN HABIEN DESAKTIBATZEA EGITEKO ABENDUKO ZERBITZUA.

BIGARRENA.- Aipatzen diren fakturez gain kontratu berria indarrean sartu bitartean udalak zerbitzu beraren faktura gehiago jasoko balitu, horiek ere onartzea eta ordaintzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari ematea

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berriazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Interesdunari legearen arabera jakinaraz bekio.



Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

UDAL IDAZKARIA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Sara Berasategui Fuertes

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2026/543 Dekretua: 2025/133 faktura zerrenda

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontu Hartzailatza eta Diruzaintza Saileko zinegotzi delegatu Cristina Pelaez Errazquin, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2026/471 Alkatetza Dekretuak, 2026ko otsailaren 13koa, zinegotzi delegatuari emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

Alkateak aintzatetsiko dituela legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2025eko honako faktura-zerrenda hau:

133. zenbakia duena, 35.849,15 eurokoa.



Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatu honek

E B A Z T E N D U

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

133. zenbakia duena, 35.849,15 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontu-hartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsua aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsua aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berriazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertze-errekurtsuari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake, edozein unetan. Errekurso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.



Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARIA

Cristina Pelaez Errazquin

Sara Berasategui Fuertes

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2026/542 Dekretua: 2025/134 faktura zerrenda

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontu Hartzailatza eta Diruzaintza Saileko zinegotzi delegatu Cristina Pelaez Errazquin, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2026/471 Alkatetza Dekretuak, 2026ko otsailaren 13koa, zinegotzi delegatuari emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

Alkateak aintzatetsiko dituela legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2025eko honako faktura-zerrenda hau:

134. zenbakia duena, 43.329,94 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.



Horiek horrela, zinegotzi delegatu honek

E B A Z T E N D U

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

134. zenbakia duena, 43.329,94 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontu-hartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berriazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.



Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARIA

Cristina Pelaez Errazquin

Sara Berasategui Fuertes

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2026/541 Dekretua: 2025/135 faktura zerrenda.

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontu Hartzailletza eta Diruzaintza Saileko zinegotzi delegatu Cristina Pelaez Errazquin, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2026/471 Alkatetza Dekretuak, 2026ko otsailaren 13koa, zinegotzi delegatuari emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

Alkateak aintzatetsiko dituela legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2025eko honako faktura-zerrenda hau:

135. zenbakia duena, 3.816,55 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.



Horiek horrela, zinegotzi delegatu honek

E B A Z T E N D U

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

135. zenbakia duena, 3.816,55 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontu-hartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:

